

BILBOKO UDALAK DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO ETA LANBIDE HEZKUNTZAKO IKASTETXEEI ZUZENDURIKO HIRI-HONDAKINEN INGURUKO BIRZIKLAPEN KANPAINA (2021-2022 ikasturtea)

1. Sarrera

Ingurumen-hezkuntza prozesu jarraia da eta ikasleria gaur egungo eta etorkizuneko etxeetako hondakinen kudeatzailea izango dela kontutan hartuz, hondakinak modu egokian sailkatzearen garrantziaz jabetzeko eta eskola komunitateak dituen zalantzak argitzeko, Bilboko Udalak ikastetxeei zuzenduriko kanpaina laugarren urtez jarraian berrantolatu du. Kanpainaren 6. edizioa izango da aurtengoa, eta azken edizioak 10etik 8,92ko balorazio orokorra lortu zuen.

2. Helburu orokorrak

- Hiri-hondakinen inguruko hierarkia ezagutzea: **murrizketa, berrerabilpena** eta **birziklapena** azpimarratuz.
- Guztiok hondakinen arazoan konponbidean dugun protagonismoaz jabetzea, hau da, hondakinen sorreran, berrerabileran eta gaikako bilketan parte hartzeak, norberak duen garrantziaz eta hondakinek suposatzen duten arazoaz **kontzientziaz eta sentsibilizatzea**.
- Partaideen artean, estimulu bat sortaraztea, **jokabide-ohituren aldaketa** eman dadin, murrizketa lehenetsiz eta sortutako hondakinak modu egokian banatuz.
- Ikas komunitate osoan, **hondakinen sailkapen egokiaren aldeko konplizitatea lortzea**, kontzienteki parte hartzen duten ingurumen kultura berriaren bozeramailea eta eragile biderkatzaile bihurtuz.

3. Hartzaileak

Ingurumen hezkuntzako kanpaina honen hartzaile zuzenak Bilboko bigarren hezkuntzako eta lanbide hezkuntzako ikastetxeetako ikasleak dira, zehazki, Bigarren Hezkuntzako 4. mailako eta Lanbide Hezkuntzako 1. mailako ikasleak.

4. Aurretiko hitzaldi informatzailea

Bilboko Udalak gardentasunarekin duen konpromisoari eutsiz, ekitaldi honetan berrikuntza bat proposatzen du: kanpainan parte hartuko duen ikasleriari zein irakasleriari hitzaldi informatzailea. Bi saiotan (bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz), [Bilboko Udaleko Zerbitzuen eta Bizi Kalitatearen Zuzendaritzak](#) hirian egiten den hondakinen kudeaketaren ikuspegi bat emango du, hondakinak erreferentziako bilketa-lerro bakoitzean uzten direnetik.

Hitzaldi bakoitzak 50 minutuko iraupena izango du, irakastordukoaren antzekoa, eta Bilboko Alde Zaharreko Burtsaren eraikinean emango da, gelako saioak hasi aurretik, hau da, ikasturte honetako bigarren hiruhilekoaren hasieran. Saio bakoitzaren eguna eta ordua behar besteko aurrerapenarekin iragarriko dira.

5. Kanpainaren garapena

Kontsumo jasagarria eta sortutako hondakinen inguruko tailer praktiko bat egitea da proposamena. Tailerrak ondorengo ezaugarriak izango lituzke:

- Iraupena: Ordu t´erdi- bi ordu (ikastetxearen nahiaren arabera)
- Lekua : talde dinamizazioak baimentzen dituen ikasgela
- Metodologia : Partehartzailea ariketa simulatuekin
- Edukiak :
 - Sarrera
 - Murrizketa
 - Salmenta teknikak
 - Kontsumo arduradun baten jarraibideak
 - Goazen erosketak egitera
 - Berrikuspena taldean
 - Berrerabilera
 - Irudien ikuskaketa
 - Bateratze-lana
 - Birziklapena
 - Jakingo al zenuke hondakin bakoitzaren helmuga zein den ?
 - Errepaso orokorra eta akatsen zuzenketa
 - Edukiontzi ondorengo bizi-tza : produktuen bizi-zikloa

Oharra : Saioen iraupenari dagokionez, ordu erdiko gora-behera ikastetxe bakoitzak duen antolaketaren arabera da (jolasgariak, ordutegiak...) eta osatuko dugun behin betiko egutegiaren arabera. Hori horrela, ezinbestekoa zaigu tailerraren iraupen maximo eta minimoa finkatzea.

6. Material didaktikoa

Kanpainari balio erantsia ezarriko dio irakasleei zein ikasleei zuzenduriko hezkuntza materialari esker. Ikastetxe guztiek hezitzaileek egindako bisita ondorenean ikasle zein irakasleen materialak lantzeko aukera izango dute. Proposatutako material guztiak formatu digitalean topa daitezke kanpainarako sortutako webgunean.

www.bilbaobirziklapena.com

7. Espazio publikoa garbitzeko jardunaldia

Benetako kontsumo-ohiturei edo kanpainaren xede diren adinetatik oso hurbil daudenei, botiloaren fenomenoari eta espazio publikoa ekitaldi, festa eta aisialdi masiboetan gaizki erabiltzeari dagokienez, berrikuntza bat sartu nahi da, gazteei gai horietan inplikatzeko beharra helarazteko. Kontzientziazio-lana da, erabilera txarraren ondorioei aurre egiten diena, erreferentziatzeko espazio publikoak garbituz. Helburua sentsibilizatzean datza, eta ez hainbeste espazio horiek profesionaltasunez garbitzea. Hiruzpalau dei egingo dira Bilboko hiri-espazioetan, nahi duten ikastetxeek aipatutako helburuan parte hartu ahal izan dezaten. Bigarren hiruhilekoan ekimenari, egutegiari eta ekintzaren xehetasunei buruzko informazioa emango zaizue.

8. Hizkuntzaren trataera

Kanpainarako eskaintzen den material guztia elebiduna izango da (euskaraz eta gazteleraz egongo da), beraz, ikastetxeko arduradunek erabakiko dute jarduerak eta unitate didaktikoak zein hizkuntzetan landuko diren.

9. Aholkularitza zerbitzua

Kanpainan zehar, parte hartzen duten irakasleei bereziki zuzenduriko aholkularitza zerbitzua dago. Modu honetan, irakaslea animatu eta gaia gure bisita aurretik edo ondoren lantzen jarraitzea da asmoa. Horretarako kanpainako telefonoa erabil daiteke: 685.738.123 edo helbide elektronikoa: bilbaobirziklapena@gmail.com

Izen-ematea eta lehentasuna

Izen-ematea kanpainako informazio guztia sarean egoteko diseinatuko den web orrialdean egingo da (www.bilbaobirziklapena.com). Guztira 100 saio egiteko aukera zabalduko da. Ikastetxeek ondorengo lehentasunak kontutan hartuz aukeratuko dira:

- 1.- "Corazones de barrio" programako partehartzaileak
- 2.- Eskolako Agenda 2030 programako partehartzaileak
- 3.- Izen-emate ordenaren arabera

Izen-emate epea: AZAROAK 30

<https://bilbaobirziklapena.com/izen-emateainscripcion-2/>

10. Kanpainaren garapena eta hondakinak biltzea (atez ate)

Kanpaina, 2021-2022 ikasturteko 2. hiruhilekoan burutuko da. Aurten, berritasun gisa, interesa duten eta beren hondakin organikoak kudeatzen dituzten zentroeiei aukera emango zaie hondakin horiek Atez ateko zerbitzu batean biltzeko. Ikastetxe bakoitzaren bideragarritasun teknikoak ikusteko, aldeaz aurretik Udalarekin jarri beharko dira harremanetan: gestionresiduos@bilbao.eus